


1 Perpaus motak. Ipini galdera marka (?), harridura marka (!) edo puntua (.).

- a) Ez al duzu ezer egin behar
- b) Oso pozik zaude gaur
- c) Nondik joan naiteke Mutrikura
- d) Zoaz ziztu bizian
- e) Joango gara ondoko zelaira
- f) Hau da hau zaparrada
- g) Hobe duzu isilik egon, aldrebeskeriaren bat esan baino
- h) Kendu paretik lehenbailehen



2 Perpaus motak. Osatu elkarrizketak.



Maitane: Patatarik nahi al duzu, Aitor?

Aitor: Ez, eskerrik asko. Beteta nago



Eneko: _____

Miren: Ez etxean ahaztu zait.




Mendizalea: _____

Artzaina: Nahiko negu hotza izango dela uste dut.



Martin: _____

Markel: Hartu zeuk! Eta ez niri horrela agindurik eman! Zer edo zer nahi baduzu, eskatu beste modu batean.



Brais: _____

Iker: Etxetik honaino galtzetako kremlera irekita duzula etorri zarelako.